

euskararen
berripapera

eb

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

Doako harpidetza:

Papera: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia kalea, 1 - 01010 VITORIA -GASTEIZ

Tel.: 945 01 69 44 | berripapera@ej-gv.es

Bertsio digitala: www.euskara.euskadi.net/berripapera

<http://twitter.com/berripaperaEJGV>

SAKONEAN

01|02

BERRIAK

03

MOTZEAN

04

Bikain Ziurtagirien banaketa

Joan den azaroaren 22an banatu ziren, Gasteizko Europa Jauregian, Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak, hau da, enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen dutenak. Aurtengo edizioan 28 erakundek egiaztatu dute ziurtagiriaren baitan dagoen 3 mailetako bat; horietatik, 9k goi-mailako urrezko Bikain egiaztatu dute; 12k, tartekoa den zilarrezkoa, eta 7k, oinarritzkoa. Lurrean banaketari dagokionez, berriz, erakunde horietatik 18 Gipuzkoakoak dira; 9, Bizkaikoak, eta, 1, Arabakoak. Eusko Jaurlaritzak antolatutako ekitaldi publiko horretan izan ziren, besteak beste, ziurtagiria eskuratu duten erakundeetako ordezkariak. /02



Euskararen erabilera aitortzea

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 28 ERAKUNDEK JASO DUTE BIKAIN ZIURTAGIRIA, HAU DA, ENPRESA-MUNDUAN ETA ESPARRU SOZIO-EKONOMIKOAN EUSKARAREN ETENGABEKO NORMALIZAZIOA EBALUATZEN ETA EGIAZTATZEN DUEN AGIRIA.

Amaitu dira 2012ko edizioako Bikain kanpo-ebaluazioak -Eusko Jaurlaritzak antolatuak eta Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioarekin lankidetzan eginak-, erakunde batean euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa neurtzera zuzenduak. Hori horrela, aurten parte hartu duten erakundeek dagoeneko jaso dute ebaluazio-txosten bana beren indargune nahiz zer hobetuen berri zehatza ematen diena, lortutako puntuazioa eta horren arabera-ko ziurtagiria. Hori guztia, lan-ibilbide desberdinetako ebaluatzaile talde batek egina.

Bikain Ziurtagiria ofiziala, publikoa eta doakoa da, eta hiru maila hartzen ditu bere baitan: oinarrizkoa edo Bikain beltza (200 puntu, gutxienez); Tarteko maila edo Bikain zilarra (400 puntu, gutxienez) eta Goi-maila edo Bikain urrea (700 puntu, gutxienez).


Aurtengo ekitaldi publikoan ziurtagiria jaso dutenen artean, ohi bezala, orotariko enpresa eta erakundeak izan dira: industrial nahiz teknologikoak, zerbitzuetakoak, asistentzialak, garraioetakoak, hezkuntzakoak, aholkularitza-alorrekoak

nahiz administrazioetakoak. Horiek guztiak egiaztatu dute garapen-maila bat edo beste euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketan.

Ekitaldi horretan izan dira, besteak beste, Bikain Ziurtagiria eskuratu duten erakundeetako ordezkariak, enpresaburu zein kooperatiba elkarteen goi-ordezkariak, Ebaluatzaile Klubeko kideak, euskal kulturgintzako ordezkariak eta baita administrazioetako, alderdi politiko nahiz alor sozio-laboraleko ordezkariak ere, Eusko Jaurlaritza eta Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioko ordezkariekin batera.

Kanpo-ebaluazio horiek Bikain Ebaluatzaileen Klubeko kideek egiten dituzte era altruistan, eta gaur egun badira 320 profesional parte hartzen dutenak, lan-sektore askotarikoak, baita eskala diferenteetakoak ere.

Bikain Ziurtagiriak, CONFEBASK, SEA, CEBEK, ADEGI eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren atxikipena du, baita Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru aldundiena, Euskaltzaindiarena nahiz EUDELena ere.



BIKAIN URREA:

- Arteman Komunikazioa Koop. E.
- Azaro Fundazioa
- Bilbo Zaharra Sozietate Kooperatibo Mugatua
- Elkar Hezi Ikastetxea
- Elorrioko Txintxirri Ikastola
- Fagor Etxetresna Elektrikoak, Koop. E. (Hotzaren Negozioa)
- Gestión de Conocimiento Itzarri S.L.
- Lekeitio Herri Ikastetxea
- Manuel de Larramendi Ikastetxea



BIKAIN ZILARRA:

- Barakaldoko San Juan Bosco Ikastetxea
- BFA-Gizarte Ekintza Saila-Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzua-Mendekotasunaren Ebaluaziorako eta Orientaziorako Atala
- Eusko Legebiltzarreko Administrazioa
- Fagor Electrónica Koop. E.
- Fagor Etxetresna Elektrikoak, Koop. E. (Zerbitzu Zentralak)
- Igartubeiti Baserri Museoa - K6 Kultur Gestioa
- Ik4-Ikerlan
- Kirol Management S.L.U.
- MATIA Fundazioko FRAISORO Zentroa
- Pasaiako Portuko Agintaritza
- Tximeleta Kirol Elkartea
- Zumalakarregi Museoa - K6 Kultur Gestioa



OINARRIZKO BIKAIN:

- ASEPEYO Mutua (Tolosa)
- ASEPEYO Mutua (Azpeitia)
- Azafatan Alkartea Lankor, S.L.
- CLECE S.A. (Euskadiko ordezkariak)
- EMAÚS Gizarte Fundazioa
- Lankor Muntai Integralak, S.L.
- PESA Bizkaia, S.A.

Euskararen Legeak 30 urte bete ditu



Esker-eskuin: Inmaculada Boneta, José Antonio Maturana, Blanca Urgell, Pedro Miguel Etxenike, Alfredo Marco Tabar eta José Luis Lizundia.

Azaroaren 24an Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen 30. urteurrena ospatu zen. Legeak euskararen garapena gidatu eta aitzinatu du gaur arte, eta haren oinarrian antolatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-plangintza eta hizkuntza-politikarako neurriak. Egun seinalatu horretarako Hizkuntza Po-

litikarako Sailburuordetzak mahai-inguru batera deitu zituen Legea eztabaidatu eta onartu zenean protagonista nagusiak izan ziren hainbat politikari eta legebiltzarkide ohi. Ekitaldian, Kulturako sailburu Blanca Urgellekin batera, honako hauek izan ziren: Pedro Miguel Etxenike (1982an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailbu-

rua zena), eta José Antonio Maturana, Inmaculada Boneta, José Luis Lizundia eta Alfredo Marco Tabar (legebiltzarkide ohiak).

Mahai-inguruko parte-hartzaileek Euskararen Legearen eraginaz eta eskaintzen dituen aukerez jardun zuten, ikuspegi ezberdinetatik. Euskal gizartean Legeak lortu duen atxikimendua ere hizpide nagusietako bat izan zen, testua guztien ahaleginei esker eta guztientzat egin baitzen, Legea onartu zutenen hitzetan. Kulturako sailburuak bertan adierazi zuenez, "Legearen abiapuntu eta edukietan asmatu izanak asko erraztu du bidea ondorengo urteetan".

Urteurrena dela eta, Eusko Jaurlaritzak Legearen edizio berezi bat atondu du, lau hizkuntzatan: EAEko bi hizkuntza ofizialetan gehi frantsesez eta ingelesez. Azaroaren 24ko ekitaldian liburuaren lehen aleak banatu ziren. Edizioari egin dion hitzaurrean, Patxi López lehendakariak Legearen gaurkotasuna bermatzen duten ezaugarriak azpimarratu ditu eta, aldi berean, hizkuntza-politika adostu baten ardatz nagusi den testu hori berriro arretaz irakurtzeko gonbita egin die Euskadiko herritarrei.

Euskararen Nazioarteko Eguna



Abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Eguna 1995ean instituzionalizatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak. Harrezkero, euskararen erabilera eta euskara bera sustatzeko asmoz, hainbat elkarte, erakunde publiko eta herritarrek milaka ekitaldi antolatu dituzte (mahai-inguruak, erakusketak, tailerrak, azokak, mota desberdinetako ikuskizunak, aurkezpenak...) egun seinalatu horretan, Euskal Herriko bazter guztietan, euskara bultzatu eta omentzeko.

Aurten, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen 30. urteurrena ospatzen dela kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak *Euskararen Aurpegiak* deitzen den kanpaina jarri du abian. Kanpaina azaroaren 24an hasi zen eta abenduaren 3an bukatu, eta, horrela, bi datak uztartu ziren. Kanpainaren bidez euskarak dituen aurpegi anitzen berri eman nahi zen: gazteak eta ez hain gazteak, gizon eta emakumeak, bertoko jendea eta atzeritik etorritakoa... Kanpainarako egin zen bideoko abestiak zioen bezala, euskarak milaka aurpegi ditu.

Gaur egun, orain dela 20 urte baino 181.000 elebidun gehiago dago EAEn, baina euskararen ezagutza eta erabilera ez dira neurri berean hazi. Biztanleen %20k euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du, eta beste %8,9k, erdara baino gutxiago. Beraz, euskararen erabilera areagotzea da xedea, erabileran baitago etorkizunaren giltzarria.

Horregatik, aurtengo abenduaren 3az gain, urte osoan zehar denok egin beharko genuke ahalegin berezi bat euskaraz airtzeko txoko guztietan: etxean eta kalean, eskolan eta tabernan, lagunekin eta familiarekin, mugikorraren bidez zein twitterren bidez, erabilerak emango baitio euskarari bizia eta indarra.

Hiztegi terminologiko berriak


Terminologia Batzordeak 2012an onartutako hamaika hiztegi terminologiko berri argitaratu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Hona hiztegiak: Automobilen mantentzea, Makina-erreminta, Eskubaloia, Gorpuztze hezkuntza, Laneko segurtasuna, Negoziazio kolektiboa, Hauteskuendak, Administrazioarekiko auziak, Burdindegia, Metalurgia eta Papergintza.

Batzordeak 2009tik 2011ra bitartean beste 24 hiztegi terminologiko onartu zituen eta Ingurumen Hiztegia izan ezik beste guztiak argitaratu zituen HPSk: 2009an, 6 hiztegi (Jatetxeak; Turismoa; Altzariak; Arropa-dendak; Elektrizitate-dendak eta Errotuluak); 2010ean, 14 hiztegi (Hipmerkatuetako produktuak; Kirol-materialak; Merkataritza-guneetako errotuluak; Bulego-materialak; Oinetakoak; Norbere irudia, ile-apaindegiak eta estetika; Iturgintza; Lanbideak; Laburtzapenak; Soziolinguistika; Bulegotika; Irudia, ikus-entzunezkoak eta soinua; Toki-administrazioa eta Datubabesa) eta 2011n, 3 hiztegi (Saskibaloia, Zenbakizko kontrola eta Musika).

Hiztegi horiek guztiak eta Ingurumen Hiztegia (Ingurumen Sailaren enkarguz orain urte batzuk egindakoa) EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoan integratuta daude (www.euskara.euskadi.net/euskalterm).



HIZKUNTZAREN INDUSTRIA, SENDOTZE BIDEAN



Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntzen industriak bultzada nabaria izango du datozen urteetan, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak aurreklusterizaera aitortu baitio aurten Langune elkarteari, hiru urtez jarduera-planaren erdia babesteko. Langune (Euskal Herriko Hizkuntza Industrien Elkartea) 2010an jaino zen, EAEko hizkuntzen industriaren alorreko entitateak (enpresak, ikerketa-guneak eta unibertsitateak) elkarrekin harremanetan jartzeko helburuarekin, eta lau esparru nagusiotan sailkatu du bere egitekoa: hizkuntzen irakaskuntza, itzulpen-gintza, edukiak (terminologia, lexikografia, etab.) eta hizkuntza teknologiak. Langune osatzen duten bazkideen artean honako hauek daude, besteak beste: Deustuko Unibertsitatea, Eizie, Elhuyar Fundazioa, Emun, Mondragon Unibertsitatea, Tecnalia Research & Innovation, UPV/EHU eta Uzei. Aurreklusterra izateak, beraz, industria-sektore estrategiko berrien artean kokatzen du Langune. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prozesuaren hasieratik eman dio bere babesa proiektuari, eta Industria Sailarekin elkarlanean aritu da egitasmoa gauzatzeko.

Argitalpen berriak

Kultura Sailak bi liburu kaleratu berri ditu. Bata *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana* (ESEP) da, Euskararen Aholku Batzordean adostutako testua, eta datozen hamar urteetan euskararen garapena gidatzeko sortua. Argitalpenean bi atal nabarmentzen dira: ESEPen planteamendu nagusia laburbiltzen duen sarrera zabal bat, alde batetik, eta plana bera osatzen duten neurriak jasotzen dituen atal zehatza, bestetik. Lehendakariak eta Kultura sailburuak idatzi dituzte liburuak dituen hitzaurreak.

Bigarren argitalpenak *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar* du izenburua eta euskarak beste hizkuntza batzuekin izan dituen harremanen inguruko bost ikerketa-saio biltzen ditu. Liburuaren abiapuntua 2011ko uztailean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatu zuen EHUko udako ikastaroan eman ziren hitzaldietan dago. Bertan, hainbat adituren ekarpenak daude jasota: Iván Igartua (edizioaren paratzailea ere badena), Joseba A. Lakarra, Javier Velaza, Joakin Gorrotxategi, Maite Etxenike eta Jean-Baptiste Coyos. Lana euskararen historia hobeto ulertzen laguntzeko asmoz egina da.

